Urretxuko udala

# 2016KO URTARRILAREN 26KO UDALBATZARRARAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO DEL 26 DE ENERO DE 2016

**Akta zenbakia:** 1/2016
**Bilera data:** 2016-01-26
**Bilera mota:** ohiko osoko bilkura
**Deialdia:** Lehenengoa
**Ordu:** 19:00- 19:20
**Tokia:** Udaletxeko areto nagusia

**Acta nº:** 1/2016
**Fecha:** 26-01-2016
**Tipo de reunión:** Pleno ordinario
**Convocatoria:** Primera
**Hora:** 19:00- 19:20
**Lugar:** Salón de plenos del Ayuntamiento

**Bertaratutakoak:**
**Alkatea:** Mikel Pagola Tolosa

**Reunidos:**
**Alcalde:** Mikel Pagola Tolosa

**Zinegotziak:**
Maribel Vaquero Montero
Jorge Segurado Iriondo
David Rosco Jorge
Miren Martiarena Barkaiztegi
Juan Luis Goikoetxea Benzala
Mª Pilar Sarasola Bulman
Mikel Izagirre Redondo
Itziar Artola Bedia
Ixiar Martiarena Lizarazu
Xabier Yurramendi Garmendia
Consuelo Frutos Gonzalez
Ivan Haro Marcos

**Concejales:**
Maribel Vaquero Montero
Jorge Segurado Iriondo
David Rosco Jorge
Miren Martiarena Barkaiztegi
Juan Luís Goikoetxea Benzala
Mª Pilar Sarasola Bulman
Mikel Izagirre Redondo
Itziar Artola Bedia
Ixiar Martiarena Lizarazu
Xabier Yurramendi Garmendia
Consuelo Frutos González
Iván Haro Marcos

**Bitarteko Idazkaria:**
Nagore Alkorta Elorza

**Secretaria interina:**
Nagore Alkorta Elorza

**Aztergaiak:**

**1.- 2015eko abenduaren 22ko akta onartzea, bidezkoa bada.**

**2.- Trafikoko Ordenantzaren aldaketa**

**3.-Langileen soldataren igoera**

**4.- Galde eskaerak**

**Orden del día:**

**1.- Aprobación, si procede, del acta de 22 de diciembre de 2015.**

**2.- Modificación de la Ordenanza de Tráfico**

**3.- Incremento de las retribuciones del personal.**

**4.- Ruegos y preguntas**

**<u>1.- 2015eko abenduaren 22ko akta onestea, bidezkoa bada</u>**

2015eko abenduaren 22ko akta onestea proposatzen da.

Udalbatzak aho batez onartu du 2015eko abenduaren 22ko osoko bilkurako akta.

**<u>1.- Aprobación, si procede, del acta de 22 de diciembre de 2015</u>**

Se propone la aprobación del acta de 22 de diciembre de 2015.

El Pleno ha aprobado de forma unánime el acta de la sesión plenaria celebrada el día 22 de

diciembre de 2015.

**2.- Trafikoko ordenantzaren aldaketa**

Alkateak hartu du hitza eta esan du gai hori 2016ko urtarrilaren 18ko Antolakuntzako Informazio Batzordean landu zela.

Consuelo Frutos udal talde sozialistako bozeramaleak hartu du hitza eta esan du hilabete batzuk atzera egin nahi duela prozesu hori nola eraman den azaltzeko. 2015eko irailaren 7tik abiatzen da, Batzorde batean jakinarazten zaienean Aranzubi kalean proba batzuk egin direla, trafiko handia zegoela eta horren zati bat, %20a, Erratzu poligonotik zetorrela. Azpimarratzen du udaltzaingoak azaldu zuela tokian bertan probatu nahi zutela kale horretatik pasatzen zen ibilgailu kopurua eta hori guztia mugikortasun plana egin zuen Bitaka enpresak proposatutako ekintza baten ondorioz izan zela. 2015eko azaroaren 16an udaltzaingoak azaldu zien nola egingo ziren probak eta horrekin loturan hartuko ziren neurriak. 2016ko urtarrilaren 18an, bestelakoak atalean orri bat aurkeztu zitzaien. Orri horren izenburua Udal trafiko ordenantzaren 13. artikuluaren aldaketa da, osoko bilkura honetan onartzeko, bermatuko duen txosten teknikorik gabe datorren orria. Eta beraiek uste dute horrek, gutxienez, txosten bat eraman beharko lukeela, aldaketa horri bermea emateko. Consuelok esan du larria iruditzen zaiela txostenik ez eramatea, baina oraindik larriagoa dela Mugikortasun Planaren ekintzak gauzatzen aritzea, plana bera oraindik onartu ez denean. Eta ulertzen dute egin beharreko lehen gauza, Mugikortasun Plana onartzea dela, eztabaidatzea, Batzorde batera ekartzea eta onartzea. Beraiek ez dute mugikortasun planaren gainean gauzatzen diren ekintzen alde bozkatuko plan hori onartu aurretik, eta horregatik, proposatutako aldaketaren aurka bozkatuko dute.

Mikel Izagirre EH Bilduko bozeramaleak hartu du hitza eta esan du hona ekartzen dena Trafiko Ordenantzaren aldaketa dela, ez norabide aldaketa edo funtzionamendu aldaketa. Ulertzen du udaltzaingoak eman diela informazio nahikoa eta gauzatzen ari diren ekintzak ekarri dituela.

**2.- Modificación de la Ordenanza de Tráfico**

Toma la palabra el alcalde para señalar que este tema se ha tratado en la Comisión Informativa de Organización celebrada a fecha 18 de enero de 2016.

Toma la palabra la portavoz del Grupo municipal socialista Consuelo Frutos señalando que quiere ir unos meses hacia atras para explicar cómo se ha llevado este proceso. Parte del 7 de septiembre de 2015, cuando en una Comisión se les informa de la realización de unas pruebas en la c/ Aranzubi, que había mucho tráfico y que parte del mismo, un 20% provenían del polígono Erratzu. Señala que la policía municipal explicó que querían probar in situ la cantidad de vehículos que pasaban por esa calle y esto todo fue a raíz también de una acción propuesta por la empresa Bitaka, la que hizo el plan de movilidad. El 16 de noviembre de 2015 la policía municipal les explicó cómo se iban a llevar a cabo las pruebas y las medidas que se iban a tomar al respecto. El 18 de enero de 2016 en el apartado de otros se les presenta una hoja cuyo título es la modificación del artículo 13 de la Ordenanza municipal de tráfico para aprobarla en este pleno, una hoja que viene sin un informe técnico que lo avale y ellos piensan que esto debería llevar cuando menos un informe para avalar esta modificación. Señala Consuelo que no lleve un informe les parece grave pero que todavía les parece más grave de esta situación es que se estén llevando a cabo acciones del Plan de movilidad cuando el mismo no se ha aprobado todavía y entienden que lo que primero se debería de hacer es aprobar el plan de movilidad, debatirlo , traerlo a una Comisión y aprobarlo. Ellos no van a votar a favor de ninguna acción que se lleve a cabo sobre el plan de movilidad antes de que se apruebe dicho plan y por ello votarán en contra de la modificación propuesta.

Toma la palabra el concejal de Eh Bildu Mikel Izagirre señalando que lo que se trae aquí es la modificación de la Ordenanza de Tráfico no la dirección ni cambio de funcionamiento.Entiende que la policía municipal ya les ha dado suficiente información y han motivado las acciones que

Hala ere, onartzen du egokiena izango litzatekeela Mugikortasun Plana eduki eta gero gauzatzea horiek. Azalpena amaitu du alde bozkatuko dutela adieraziz.

están llevando a cabo. Reconoce, no obstante, que lo más adecuado sería ejecutarlas una vez teniendo aprobado el plan de movilidad. Finaliza la exposición señalando que votarán a favor.

Mikel Pagola alkateak hartu du hitza eta esan du egia dela ez dugula mugikortasun planik eta ulertzen duela komeni dela aldez aurretik proba batzuk egitea, eta behin emaitzak aztertu eta gero, dagokion Mugikortasun Plana egiteko dokumentazioa osatzea. Beste bide bat izango litzateke aldez aurretik inolako probarik egin gabe mugikortasun plan bat onartzea eta gero hori aldatzen joatea, egunerokoan sortzen diren beharren arabera. Bere planteamendua beste bat izan da, hau da, udalerrian aurreikus daitezkeen jarduketa zehatzak definitzea, eta jarduketa guztiekin kronograma bat osatzea, eta behin jarduketa bakoitzari dagokionez proposamen egokienak aztertu eta gero, hori txertatuko da behin betiko Mugikortasun Planean.

Toma la palabra el Alcalde Mikel Pagola para señalar que es cierto que no tenemos un plan de movilidad y entiende que es conveniente hacer unas pruebas previas y una vez analizados los resultados conformar la documentación para elaborar el correspondiente plan de movilidad. Otra vía sería aprobar un plan de movilidad sin hacer ninguna prueba previa y luego ir modificándolo según las necesidades surgidas en el día a día. Su planteamiento ha sido otro, es decir, definir las actuaciones concretas que se puedan prever en el municipio, y establecer un cronograma con respecto a todas las actuaciones y una vez analizadas las propuestas más adecuadas con respecto a cada actuación, eso será lo que se incluirá en el Plan de movilidad definitivo.

Mikel Izagirrek erantzun dio esanez hobe dela Mugikortasun Plan irekia, malgua izatea, zerbait izatea eta gero xehetasun jakinak txertatzen joatea.

Le contesta Mikel Izagirre señalando que es mejor tener un Plan de Movilidad abierto, flexible, tener algo y luego introducir aspectos puntuales.

Alkateak proposatu du trafiko ordenantzaren aldaketa bozkatzea, eta emaitza honako hau izan da:

Alde: 11 (EAJ-PNV 7, BILDU 4)

Kontra: 2 PSE-EE/PSOE

Abstentzioak: 0

El alcalde ha propuesto someter a votación la modificación de la ordenanza de tráfico , con el siguiente resultado:

A favor: 11 (EAJ-PNV 7, BILDU 4)

En contra: 2 PSE-EE/PSOE

Abstenciones: 0

Ikusirik 2016ko urtarrilaren 18an egindako Antolakuntzako Informazio Batzordean gaia eztabaidatu eta informazioa eman zela.

Visto que en la Comisión Informativa de Organización celebrada el día 18 de enero de 2016, se trató e informó sobre este punto.

Osoko Bilkurak, beharrezko legezko gehiengoarekin

El Pleno, adopta con la mayoría legal requerida el siguiente

**ERABAKI DU**

**Lehena.-** Hasierako onarpena ematea hiriguneko bide publikoen erabilerak, trafikoa, zirkulazioa eta segurtasuna Arautzen dituen Udal Ordenantzaren aldaketari. (I. Eranskina)

**Bigarrena.-** Espedientea jendaurrean jartzea 30 egun baliodunez iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, interesdunek espedientea azter dezaten eta egokiak iruditzen zaizkien erreklamazio eta iradokizunak aurkez ditzaten.

Espedientea Udaletxeko idazkaritzan dago 8:30etik 14:00erako ordutegian (larunbatetan izan ezik).

Adierazitako informazio epea igarota erreklamaziorik edo iradokizunik jaso ez balitz, ordu arte behin behinekotzat jotzen diren erabakia behin betikoa izatera pasako da, erabaki berririk hartu beharrik gabe.

**ACUERDO**

**Primero.-**Aprobar inicialmente la modificación de la Ordenanza Municipal Reguladora de los usos, tráfico, circulación y seguridad en las vías públicas de carácter urbano.( Anexo I)

**Segundo.-**Someter el expediente a información pública durante un plazo de 30 días hábiles a partir del día siguiente a la publicación de este anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, a fin de que las personas interesadas examinen el expediente y presenten las reclamaciones y sugerencias que estimen pertinentes.

El expediente se encuentra en la Secretaría del Ayuntamiento en horario de 8:30 a 14:00 horas (excepto sábados).

Si transcurrido el plazo de información expresado no se hubiera presentado reclamación o sugerencia alguna, se tendrá por adoptado definitivamente el acuerdo hasta entonces provisional, sin necesidad de adoptar nuevo acuerdo.

**3.- Langileen soldataren igoera**

Alkateak hartu du hitza eta esan du gai hori 2016ko urtarrilaren 18ko Antolakuntza Informazio Batzordean landu zela. Estatuko Aurrekontuen Legeak ezartzen duen aukeraren berri ematen du: sektore publikoaren zerbitzuan lanean ari diren langileen oinarrizko ordainsariei %1eko igoera aplikatzeko aukera.

Alkateak langileen ordainsarien igoera bozkatzea proposatu du, eta emaitza honako hau izan da:

Alde: 13 (EAJ-PNV 7, BILDU 4) PSE-EE/PSOE 2)

Kontra: 0

Abstentzioak: 0

**3.- Incremento de las retribuciones del personal.**

Toma la palabra el alcalde para señalar que este tema se ha tratado en la Comisión Informativa de Organización celebrada a fecha 18 de enero de 2016. Da cuenta de la posibilidad que establece la Ley de Presupuestos Generales del Estado de aplicar una subida del 1% en las retribuciones básicas del personal al servicio del sector público.

El alcalde ha propuesto someter a votación el incremento de las retribuciones del personal , con el siguiente resultado:

A favor: 13 (EAJ-PNV 7, BILDU 4, PSE-EE/PSOE 2)

En contra: 0

Abstenciones: 0

Ikusirik 2016ko urtarrilaren 18an egindako Antolakuntzako Informazio Batzordean gaia eztabaidatu eta informazioa eman zela.

Visto que en la Comisión Informativa de Organización celebrada el día 18 de enero de 2016, se trató e informó sobre este punto.

Osoko Bilkurak, aho batez

El Pleno, adopta por unanimidad el siguiente

**ERABAKI DU**

**ACUERDO**

**Lehena eta bakarra.-** Udaletxearen zerbitzura dauden langileen oinarrizko ordainsariak %1 igotzea 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera.

**Primero y único.-** Incrementar una subida del 1% en las retribuciones básicas del personal al servicio del Ayuntamiento a partir del 1 de enero de 2016.

**4.- Galde-eskeak.**

**4.- Ruegos y preguntas**

Consuelo Frutos udal talde sozialistako bozeramaleak hartu du hitza eta esan du hainbat galdera dituztela, eta ez dituztela erregistratu, pentsatzen dutelako galdera horiek ez direla teknikoki erantzun behar, ulertzen dutela orain alkateak erantzuteko modukoak direla.

Toma la palabra la portavoz del Grupo municipal socialista Consuelo Frutos señalando que tienen varias preguntas, que no las han registrado, porque piensan que no son preguntas que tengan que ser contestadas técnicamente, que entiende que se las puede contestar ahora tranquilamente el alcalde.

Hauek dira alkateari egindako galderak:

Estas son las preguntas dirigidas al Alcalde:

a) 2016ko urtarrilaren 6an postontzietan herritarrei zuzendutako eskutitz bat aurkitu zutela, urtarrilaren 7an herritarren parte-hartzeari buruz egingo zen aurkezpenaren berri emateko. Harrigarri iruditu zaie Udaletxeko zinegotziei gonbidapenik ez ematea, ez zeukatela ideiarik ere urtarrilaren 7an herritarren parte-hartzeari buruzko hitzaldi bat egitekoa zenik. Eta hitzaldi horretan jakin zutela, era berean, zein egunetan aurkeztuko ziren inbertsio estrategikoak eta jakin nahi dutela zergatik egin diren gauzak horrela.

a) Que el 6 de enero de 2016 se encontraron en los buzones con una carta dirigida a los ciudadanos donde se informa de la presentación que se haría el 7 de enero sobre participación ciudadana. Les ha extrañado que no se les hiciera una invitación a los concejales del Ayuntamiento, que no tenían ni idea de que el día 7 de enero se iba a celebrar una charla sobre participación ciudadana. Y que en esa charla se enteraron a su vez de las fechas en las que se iban a presentar las inversiones estratégicas y que les gustaría saber por qué se han hecho las cosas así.

b) Gobernu taldeak proposatutako inbertsio estrategikoen aurkezpenaren barruan, kiroldegia eraberritzea zegoela eta aurkezpenaren barruan irudi batzuk zeudela eta ez dakitela Aventori eskatu zaion proiektuarenak diren eta zergatik ez zaizkien zinegotziei erakutsi herritarrei azaldu aurretik.

b) Que dentro de la presentación de las inversiones estratégicas que el equipo de gobierno había propuesto estaba la remodelación del polideportivo y que dentro de la presentación había unas imágenes que no saben si son del proyecto que se ha pedido a Avento y por qué primero no se les ha enseñado a los concejales antes que explicarlas a la

ciudadanía.

c) Kiroldegiko tabernari dagokionez, galdetu du aurreko esleipendunak zor zuena ordaindu ote zuen, eta azkenik, kiroldegiko taberna berriz irekiko ote den, hori baita kalean entzuten dena, eta beraiei ez zaiela horren berri eman Udaletxean.

c) En relación al bar del polideportivo pregunta si ya se ha pagado la cantidad que se debía por la anterior adjudicataria y por último si se va a abrir de nuevo el bar del polideportivo porque eso es lo que se escucha en la calle y no se les ha informado a ellos en el Ayuntamiento.

Alkateak erantzun dio hemen adierazitako galderetako batzuei erantzuteko hainbat akta aztertu behar dituela eta idatziz erantzungo zaiola.

Le contesta el Alcalde que para poder responder con exactitud a algunas de las preguntas planteadas aquí quiere revisar unas actas y se le contestará por escrito.

Azkenik, eta jorratzeko gai gehiago ez dagoenez, Alkateak amaitutzat eman du osoko bilkura hau, goiburuan adierazitako datan, zazpiak eta hogei direnean, eta nik Urnietako bitarteko idazkariak, hala egiaztatu dut, alkatearen oniritziarekin.

Finalmente, no habiendo más asuntos que tratar, el alcalde da por finalizado el presente pleno ordinario, siendo las siete y veinte de la fecha indicada en el encabezamiento, se levanta la sesión, de la que yo, Secretaria interina de Urnieta, certifico con la aprobación del Alcalde.

Sin.: Nagore Alkorta Elorza

Bitarteko Idazkaria

idazkaritza
Urnietako udala

Sin.: Mikel Pagola Tolosa

Alkate-lehendakaria

alkatetza
Urnietako udala

ANEXO I / I.ERANSKINA

**MODIFICACIÓN DEL ART.13 DE LA ORDENANZA MUNICIPAL DE TRÁFICO**

Se introduce un nuevo apartado (art.13.3) que señalará lo siguiente:

*Art.13.3.-Quedará restringida al tráfico la **c/ Aranzubi,** en el tramo comprendido entre la rotonda del cruce con la c/ San Juan y su cruce con la c/ Idiazabal. Podrán únicamente circular por la misma los residentes y aquellos que acudan a destino.*

*Se cumplirá la condición de **residente** cuando el conductor, algún viajero o el vehículo esté empadronado en las siguientes calles: **c/ Herreros, c/ Dendaldegui, el tramo de la c/ Aranzubi comprendido en la restricción y los números impares comprendido entre el 37 y 43 de la c/ Idiazabal ( ambos inclusive).***

*Se considerarán también residentes los propietarios o inquilinos de los garajes y locales ubicados en las calles señaladas en el apartado anterior.*

*Se considera que van a **destino** aquellos usuarios y/o personal trabajador de los comercios ubicados en dichas zonas.*

**ALDAKETA TRAFIKO UDAL ORDENANTZAKO 13. ARTIKUKUAN**

Ondorengoa adieraziko duen atal berria (13.3. art.) txertatuko da:

*13.3. art.- Aranzubi kalean trafikoa mugatuta geratuko da San joan kaleko biribilguneko bidegurutzearen eta kale horrek Idiazabal kalean duen bidegurutze tartean. Bertan bizi direnak eta kale horretan helburua dutenak bakarrik ibili ahal izango dira bertatik.*

***Egoiliar** baldintza beteko da gidaria, bidaiariren bat edo ibilgailua bera ondorengo kaleetan erroldatuta badago: Herreros kalean, Dendaldegi kalean, murrizketa jarritako Aranzubi kalearen eta Idiazabal kaleko 37 eta 43 (biak barne) zenbaki bakoitien artean.*

*Aurreko paragrafoan aipatutako kaleetan dauden garaje edo lokal bateko jabe edo maizter direnak ere egoiliar izaera izango dute.*

*Ingurune horretan dauden saltokiak erabiltzen dituztenak edo bertan lan egiten dutenak helburura doazenentzat joko dira.*